

8/14

*irizpena*

Euskal Administrazio Publikoaren  
Lege Aurreproiektuari buruzkoa

Bilbon, 2014ko uztailaren 9an



CES  
EGAB

Consejo Económico  
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

## I.- SARRERA

---

2014ko ekainaren 12an, Herri Administrazio eta Justizia Sailaren idatzia heldu zen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordera. Idatzi horren bitartez, "*Euskal Administrazio Publikoaren Lege Aurreproiektuaren*" gaineko txostena eskatzen zen, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1 artikulua ezarritakoari jarraiki.

Aztergai darabilgun lege-ekimenaren xedea Euskal Herri Administrazioaren antolaketa eta jardunbidea arautzea da, beraren pertsonifikazio-eite guztietan eta, hala, ereduzko testu bilakatzea EAEko egitura publikoaren antolaketa eta jardunbidearen esparru bikoitza koherentziaz janzteko. Hori dela eta, erreferentziazko lege izan nahi du, euskal administrazioaren eginkizunak artezten dituen arau-multzoa behar bezala antolatzen duena.

Agiria jaso eta berehala, kopia bidali zitzaion Osoko Bilkura osatzen duten kide guztiei, proposamenak eta iritziak igorri eta horien guztien berri lantalde egokiari emateko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Jarduera Araudiak ezarritakoari jarraiki. 2014ko ekainaren 27an, Ekonomia Garapenerako Batzordea bildu zen, eta bertan hartutako erabakietan oinarrituta, honako Irizpen-proiektu hau idatzi zen; gero, Osoko Bilkurara helarazi zen eta uztailaren 9an aho batez onartu zen.

## II.- EDUKIA

---

"*Euskal Administrazio Publikoaren Lege Aurreproiektuak*" ondoko edukiak dauzka: Zioen azalpena, sei titulutan banatutako 128 artikulua, bi xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bat.

**Zioen azalpenean esaten den bezala**, honako lege honek ereduzko edo erreferentziazko testua eskaini nahi du, Euskal Autonomia Erkidegoko egitura publikoaren antolamenduaren eta funtzionamenduaren kontzeptu-esparru bikoitzari koherentzia emateko.

Erreferentziazko lege horren zeregin nagusia Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren lana diziplinatzen duten arauen multzoa antolatzea litzateke. Horren bidez, lehenengo, gai berari buruz dagoen legeria zabalak eragiten dituen disfuntzioak eta kontraesanak murriztea da xedea. Eta, bigarren, eztabaida erabakitzailea sustatu nahi da *gauza publiko* deiturikoari

buruz herritarrek duten pertzepzioaren hobekuntzaren gainean, haren balioa handitzeko eta, finean, administrazio-kultura berria sortzen laguntzeko, garai hauek eskatzen dituzten paradigma berriak oinarri hartuta; besteak beste: efikazia eta efizientzia, antolamendua eta gobernantza, eta gardentasuna eta arazo publikoetan herritarrek parte hartzea.

**Atariko Tituluak**, legearen xede bikoitza aipatzen du -antolamendua eta funtzionamendua-, eta helburu orokorrak ere jasotzen ditu. Halaber, aplikazio-eremua Euskal Autonomia Erkidegoa dela dio, lurralde-erakunde gisa, berarekin lotura edo mendetasun-harreman nabarmena duten erakunde guztiekin.

Arauketaren atariko tratamendu horren osagarri, erakunde-antolamenduaren eduki subjektiboa zehazten da. Erakunde-moten ohiko estandarrari erantzuten zaio, eta gero horiek justifikatu ere egingo dira, haien existentziaren eta aniztasunaren zergatiaren ikuspuntutik

**I. tituluak, “Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta Instituzionala”** deritzonak, gure erkidegoko Administrazioaren arlo zehatzetan geure gain hartzen ditugun lege-konpromisoak jasotzen ditu, Gobernu Legean bertan jasotzen diren edukiei jarraiki. Eduki horietako batzuk hemen jasotzen dira haien garrantzi operatibo eta juridikoagatik eta, beraz, lege honetan bertan agertu behar dira berriro, berriak diren beste zehaztapen batzuekin batera.

**II. Tituluak, “Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren osaera eta haren koherentzia”** deritzonak, izenburukoak, administrazioari gutxiago edo gehiago lotuta dauden erakunde publikoen eta pribatuen multzoa berrantolatzeko, argitzeko eta —inoiz— tamainaz aldatzeko beharra hartzen du aintzat.

Alde batetik, “sektore publikoko subjektu modura jarduteko printzipio orokorrak” ezartzen dira. Printzipio horiek Administrazio Publiko osoarentzat oro har aipatutako berberak dira, baina erakunde instituzionalen eta instrumentalen esparrura eramanda. Bestetik, “erakunde berriak sortzeko edo lehendik daudenetan parte hartzeko printzipioak” ematen dira, eta horien bidez egituraren alderdi berezi horri egin beharreko aplikazioa zehazten da; izan ere, tentuz hartzeko moduko gaia dela erakutsi digu esperientziak. Printzipio horiek gidatu behar dute sorrera-prozesua, zeinak bi fase izango baititu; orokorra, bata, eta mota bakoitzerako berezia, bestea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko Erakundearen Erregistroa sortzen da, eta han inskribatu beharko dira, nahitaez, haien bizitzako gorabehera nagusiak. Erregistroa publikoa eta informatiboa izango da, eta, legearen arabera, administrazio publikoko eskumenak dituen sailari atxikita egongo da.

**III. tituluak, “Euskal Administrazio Publikoaren funtzionamendua, herritarren zerbitzura egoteko”** izenburua duenak, administrazioaren funtzionamendua arautu behar duten printzipio orokorrak ezartzen ditu hasieran bertan (lehenengo tituluaren aurreratutakoak zehaztu eta garatzen ditu, kasu honetan), eta herritarrek Administrazioaren aurrean dituzten eskubide eta betebeharrak nagusiak ere finkatzen ditu.

Plangintzari eta ebaluazioari dagokionez, esan daiteke ebaluazioa beharrezkoa dela gardentasunari eta parte hartzeari zentzua emateko, eta beraren erabilgarritasuna azpimarratu eta indartu egiten da gardentasunaren eta parte hartzearen printzipioak berak modu egokian garatzen badira. Ebaluatzeko betebeharra triangulu horren ganga-giltzarria da. Horregatik, ebaluazio-prozedura berrien sorta oso bat ezartzen da Administrazioan, ditugun eredu aurreratuenak oinarri hartuta.

Administrazio elektronikoari dagokionez, azkenaldian garapen ikusgarria izan duen arren, gehiago zabalduko da egitez (administrazioan digitalizazioa gauzatzen ari da, arian-arian) arauen eraginez baino; hala ere, gai hori ezin da lege honetatik kanpo utzi, administrazio modernoaren funtsezko ardatza izatea nahi badugu.

**IV. tituluak, “Euskal Administrazio Publikoaren gardentasuna” deritzonak**, oinarrizko legearen eskema jarraitzen du, eta, testuinguru honetan, Autonomia Erkidegoaren eremuan garatzen du Gardentasunari, informazio publikora iristeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen funtsezko edukia.

Publizitate aktiboaren atalean, herritarrei modu proaktiboan helaraziko zaien informazio-sortaz gain, aipagarria da datuen irekiera eta berrerabilpena (*open data*). Euskal Autonomia Erkidegoa aitzindaria da gai horretan, nahiz eta oraindik badugun ibili beharreko bide bat aurretik, erreferentziakoak diren herrialdeen eruedetara iristeko (Erresuma Batua eta Estatu Batuak, besteak beste).

Azkenik, **V. tituluak, herritarren parte-hartzeari eta parte hartzeko eskubideei** buruzkoak, ikuspegi malgua eta moldagarria hartzen du; izan ere, egun dauden eta etorkizunean sortu litezkeen parte hartzeko moduen kopurua, aniztasuna eta aberastasuna kontuan izanik, parte hartzeko edozein prozedurak bete behar dituen baldintzak eta oinarrizko bermeak ezartzea izan da aukera, parte hartzeko figuren katalogo itxi bat, beti amaitu gabea, eskaini beharrean. Horrela, batetik, aurrez aurre zein telematika bidez parte hartzeko bide berri eta berritzaileak gehitu ahal izango dira unean uneko gaitasun teknologikoen arabera, beharrezkoak diren bermeak murriztu gabe. Eta, bestetik, Administrazioari aukera zabala emango zaio unean-unean erabakitzeko zein den jardun publiko bakoitzaren garrantziari, konplexutasunari edo neurriari hobekien egokitzen zaion bidea.

Nabarmendu behar dugu herritarrek arau-mailako ekimenak sustatzeko eskubidea ere jasotzen dela. Artikulu horrek, eskemari jarraituz eta Herritarren legegintza-ekimenari buruzko ekainaren 26ko 8/1986 Legeak ezarritako bermeak baliatuz, aukera berri hori txertatzen du eta, gainera, herritarrek galdatzen dituzten babes zabaleko eta egokitasun ageriko eskakizunak aintzat hartzeko aukera ematen dio Gobernuari, politika publikoen gainean erabaki eta zuzentzeko ahalmena galdu gabe.

Azkenik, “Gobernu Irekiaren Plataforma” jasotzen da proposatzen da eta eginkizunak eratxikitzen zaizkio parte-hartzearen nahiz gardentasunaren ikusmoldeetatik.

Arauren artikulatua ondokoa da:

#### **ATARIKO TITULUA.- Euskal Administrazio Publikoa**

##### Lehenengo kapitulua.- Xedapen orokorrak

1. artikulua.- Xedea
2. artikulua.- Helburuak
3. artikulua.- Aplikazio-eremua

##### Bigarren kapitulua.- Antolamendu instituzionala

4. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
5. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa

**I. TITULUA.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta Instituzionala**Lehenengo kapitulua.- Egitura

6. artikulua.- Administrazio Orokorra
7. artikulua.- Antolakuntza- eta funtzionamendu-printzipioak
8. artikulua.- Goi-karguak eta zuzendaritza-organoak
9. artikulua.- Administrazio Orokorreko sailak
10. artikulua.- Egitura organiko eta funtzionalari buruzko dekretuak
11. artikulua.- Euskadik kanpoan duen Administrazioa
12. artikulua.-Kide anitzeko organoak
13. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio aholku-emaile gorena
14. artikulua.- Herritarrek eta elkarteek parte hartzeko gune egonkorrak

Bigarren kapitulua.- Antolamendua*Lehenengo atala.- Elementu antolatzaileak*

15. artikulua.- Administrazio-organoak
16. artikulua.- Administrazio-unitateak

*Bigarren atala.- Eskumenak*

17. artikulua.- Printzipio orokorrak
18. artikulua.- Eskumenak deskontzentratzea
19. artikulua.- Zerbitzuko jarraibide, zirkular eta aginduak
20. artikulua.- Eskumenak eskuordetzan ematea
21. artikulua.- Izenpea eskuordetzan ematea
22. artikulua.- Karguak ordezkatzeari
23. artikulua.- Goragokoak eskumena bereganatzea
24. artikulua.- Kudeaketa-gomendio intrasubjektiboa
25. artikulua.- Kudeaketa bateratuko zentroak

Hirugarren atala.- Administrazioen arteko lankidetzaren eta koordinazioa

26. artikulua.- Araubide orokorra
27. artikulua.- Lankidetzaren ekonomikoa, teknikoa eta administratiboa
28. artikulua.- Lankidetzaren hitzarmenak

29. artikulua.- Jarduera-plan bateratuak

30. artikulua.- Administrazioek elkarri funtzioak eskuordetzan ematea

31. artikulua.- Euskal Sektore Publikoko erakunde instrumentalei edo zuzenbide publikoko korporazioei funtzioak eskuordetzan ematea

32. artikulua.- Administrazio publiko eta erakunde publikoen arteko kudeaketa-gomendio intersubjektiboak

## **II. TITULUA - Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren osaera eta haren koherentzia**

### Lehenengo kapitulua.- Sailkapena eta printzipioak

33. artikulua.- Tipologia

34. artikulua.- Sektore publikoko subjektu modura jarduteko printzipio orokorra

35. artikulua.- Erakunde berriak sortzeko edo lehendik daudenetan parte hartzeko printzipioak

### Bigarren kapitulua.- Erakundeak eratzea, eta haien araubide juridikoa

36. artikulua.- Erakundeak eratzeko prozedura orokorra

37. artikulua.- Organismo Autonomoak

38. artikulua.- Zuzenbide pribatuko erakunde publikoak

39. artikulua.- Administrazio Instituzionaleko erakundeak eratzea

40. artikulua. - Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kapital-sozietateak

41. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kapital-sozietateak eratzea

42. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazioak

43. artikulua.- Fundazioak eratzea

44. artikulua.- Partzuergoak

45. artikulua.- Partzuergoak eratzea

### Hirugarren kapitulua.-Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publiko osoaren antolamendua aldatzen duten inguruabarrak

*Lehenengo atala.- Sektore publikokoak ez diren erakundeetan parte hartzea, eta erakunde horiek finantzatzea*

46. artikulua.- Beste erakunde batzuetan parte hartzea

47. artikulua.- Parte hartzearen ondorioz erakundea ez sartzea sektore publikoan

*Bigarren atala.- Erakundeak berregituratzea eta azkentzea*

48. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa berregituratzea

49. artikulua.- Enpresa-ondareak biltzea

50. artikulua.- Azkentzea, eta sektore publikotik kanpo geratzea

Laugarren kapitulua.- Administrazio Orokorraren eta sektore publikoko erakundeen arteko harremanak

51. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko Erakundeen Erregistroa

52. artikulua.- Atxikipena eta gidalerroak

53 artikulua.- Egintzak eta errekurtsioak

54. artikulua.- Gobernu-organoetako ordezkariak

55. artikulua.- Sozietate publikoak administratzea

### **III. TITULUA.- Euskal Administrazio Publikoaren funtzionamendua, herritarren zerbitzura egoteko**

Lehenengo kapitulua.- Xedapen orokorrak

56. artikulua.- Funtzionamenduaren eta herritarrekiko interakzioaren printzipioak

57. artikulua.- Euskal Administrazio Publikoarekiko harremanetan herritarrek dauzkaten eskubide eta betebeharrak

Bigarren kapitulua.- Politika publikoen plangintza, kudeaketa eta ebaluazioa

*Lehenengo atala.- Gobernu-jardueraren plangintza, aurretiazko ebaluazioa eta informazioa*

58. artikulua.- Gobernu-plana

59. artikulua.- Lege-proiektu, plan estrategiko eta jardura esanguratsuen eraginaren aurretiazko ebaluazioa, eta esku-hartze publikoen beste ebaluazioak

60. artikulua.- Lege-proiektu, plan estrategiko eta jardura esanguratsuen eraginaren aurretiazko ebaluazioa: definizioa eta ebaluatzeko prozedura

61. artikulua.- Gobernu Planaren inplementazioaren segimendua

*Bigarren atala.- Kudeaketa publikorako sistemak eta horien ebaluazioa*

62. artikulua.- Antolamendu-unitateetan kudeaketa publiko aurreraturako sistemak ezartzea

63. artikulua.- Antolamendu-unitateen kudeaketaren ebaluazioa

*Hirugarren atala.- Politika publikoen emaitzen eta eragin metatuen ebaluazioa*

64. artikulua.- Emaitzen eta eragin metatuen ebaluazioa

65. artikulua.- Sinplifikazio administratiboa eta kargak arintzea

66. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeen ebaluazioa

67. artikulua.- Sektore publikoko erakundeak ebaluatzeko prozedura

68. artikulua.- Arau-multzoen eraginen ebaluazioa

*Laugarren atala.- Politika publikoen plangintza, kudeaketa eta ebaluazioa sustatzea*

69. artikulua.- Politika publikoak planifikatu, kudeatu eta ebaluatzeko kultura

70. artikulua.- Ezagutza zientifikoa eta aditua politika publikoen ebaluazioan sartzea

*Bosgarren atala.- Ebaluazioaren publizitatea*

71. artikulua.- Ebaluazioaren publizitatea

72. artikulua.- Politika publikoak ebaluatzeko erregistroa

Hirugarren kapitulua.- Administrazio elektronikoa eta herritarrentzako arreta

73. artikulua.- Administrazio elektronikoaren printzipioak

74. artikulua.- Administrazio elektronikoaren arloko eskubideak eta betebeharrak

75. artikulua.- Prozedura administratiboak sinplifikatzea, zerbitzu eta kanal elektronikoen bidez

76. artikulua.- Administrazio elektronikoa bultzatzeko lankidetzak-tresnak

77. artikulua.- Erakunde pribatuen eta publikoen terminal eta webguneen bidezko irisgarritasuna

78. artikulua.- Herritarrekiko interakziorako kanal anitzeko sistema

Laugarren kapitulua.- Euskal Administrazio Publikoaren hizkuntzak

79. artikulua.- Zerbitzu-hizkuntzak, harreman-hizkuntzak eta lan-hizkuntzak

80. artikulua.- Xedapenen eta komunikazioen hizkuntza

81. artikulua.- Espedienteen hizkuntza

82. artikulua.- Erregistro publikoen hizkuntza

#### **IV. TITULUA.- Euskal Administrazio Publikoaren gardentasuna**

Lehenengo kapitulua.- Administrazio Publikoaren gardentasuna

83. artikulua.- Gardentasuna eta informazio publikoa

84. artikulua.- Konpromiso orokorrak

85. artikulua.- Informazioa ematera behartuta dauden subjektuak

Bigarren kapitulua.- Publizitate aktiboa eta datuen irekiera

86. artikulua.- Publizitate aktiboaren printzipioa

87. artikulua.- Publizitate aktiboaren arloko obligazioak

88. artikulua.- Instituzioari eta antolamenduari buruzko informazioa

89. artikulua.- Plangintzari eta ebaluazioari buruzko informazioa

90. artikulua.- Garrantzi juridikoa duen informazioa

91. artikulua.- Administrazioaren jarduera ekonomikoari buruzko informazioa

92. artikulua.- Jarduera publikoari buruzko informazioa

93. artikulua.- Ekonomiari, aurrekontuei eta ondareari buruzko informazioa

94. artikulua.- Interes orokorreko informazioa

95. artikulua.- Datuak berrerabiltzea eta irekitzea

Hirugarren kapitulua.- Informazio publikorako irispidea

96. artikulua.- Informaziora iristeko eskubidearen titularrak

97. artikulua.- Informaziora iristeko modalitatea eta kostuak

98. artikulua.- Informazio publikora iristeko eskubidearen mugak

99. artikulua.- Datuetara iristeko eskubideko salbuespenak

100. artikulua.- Informazio publikora iristeko eskubidea eta datu pertsonalak babestea

101. artikulua.- Iripide partzialaren printzipioa

102. artikulua.- Salbuespenen aldi baterakotasuna

103. artikulua.- Espedienteetara iristea

Laugarren kapitulua.- Informazio publikora iristeko eskubidea erabiltzea

104. artikulua.- Informazio publikora iristeko eskaera

105. artikulua.- Eskaera onartzea eta ebazpenaren aurreko gertakariak

106. artikulua.- Ebazteko epea

107. artikulua.- Ebazpena

108. artikulua.- Aurkaratze-araubidea

109. artikulua.- Egitura egokitzea informaziora iristeko eskubidera eta herritarren informazio-beharrizanetara

Bosgarren kapitulua.- Gardentasunaren Euskal Agentzia - Gardena

110. artikulua.- Sorrera

111. artikulua.- Xedeak

112. artikulua.- Osaera

113. artikulua.- Presidentea

114. artikulua.- Eginkizunak

115. artikulua.- Araubide juridikoa

116. artikulua.- Harremanak Legebiltzarrarekin

117 artikulua.- Lankidetzak Datuak Babesteko Euskal Agentziarekin

## **V. TITULUA.- Herritarren parte-hartzea eta parte hartzeko prozesuak**

118. artikulua.- Herritarren parte-hartzearen helburua eta egituraketa

119. artikulua.- Interesdun izatea eta parte hartzeko prozesuak

120. artikulua.- Hainbat interesen ordezkari diren taldeak

121. artikulua.- Interesen ordezkari diren taldeen erregistroa

122. artikulua.- Parte-hartzea sustatzeko neurriak

123. artikulua.- Parte hartzeko tresnak

124. artikulua.- Parte hartzeko prozedura eta tresnen berme komunak

125. artikulua.- Politika publikoen ebaluazioan eta zerbitzu publikoen kalitatearen ebaluazioan parte hartzeko eskubidea

126. artikulua.- Erregelamenduak egiteko ekimenak bultzatzeko eskubidea

127. artikulua.- Xedapen orokorren prestaketan, gobernu- plangintzan eta jarduera esanguratsuetan parte hartzeko eskubidea

128. artikulua.- Gobernu Irekiaren Plataforma

## **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

Lehen xedapen gehigarria.- Lege honetan informazio publikora iristeko eskubidearen gainean araututakoa Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeetan eta haien sektore publikoetan aplikatzea

Bigarren xedapen gehigarria.- Legearen aplikagarritasuna beste eremu batzuetan

## **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

Azken xedapena.- Lege hau indarrean sartzea

# **III.- GOGOETA OROKORRAK**

---

## I. Aurretizko gogoetak

*Euskal Administrazio Publikoaren Lege Aurreproiektua* hartu du EGABek, horren gaineko irizpena eman dezan. Proposamen horren bitartez, Gobernuaren xedea da, Zioen azalpenean esaten den legez, Euskal Administrazio Publikoaren antolamendua eta funtzionamendua arautu nahi du, hura personatzeko modua edozein delarik ere, eta erduzko edo erreferentziazko testua eskaini nahi du, Euskal Autonomia Erkidegoko egitura publikoaren antolamenduaren eta funtzionamenduaren kontzeptu-esparru bikoitzari koherentzia emateko. Azken batean,

erreferentziazko lege izan nahi du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren lana diziplinatzen duten arauen multzoa antolatzeko xedez.

Legearen eduki zehatzak aletu baino lehen, irizpena bidezkotzen duten gogoeta batuk proposatu nahi ditugu.

Lehenengoz eta bat, gure iritziz, esparru publikoan nahiz esparru pribatuan gauzatzen den zeinahi erreformak bi baldintza bete behar dituela: antzemandako arazoan gaineko diagnostikoa egitea eta aurkitu diren arazo horiek konpontzeko gauza diren ekintzak zehaztea. Hori dela eta, proposamen arauemaile guzti-guztiek eduki behar dute baldintza horiek betetzen dituen sarrera edo atarikoak. Lege-aurreproiektuaren zioen azalpenak arazo batzuen berri ematen du modu orokorrean, baina ez ditu arazoak zehazten. Gainera, “paradigma berriak” ezartzeko beharrianaz aritzen da, baina gero horretarako beharrianik ez dagoela adierazten da testuan. Esandakoak biziki zailtzen du proposamen arauemailearen ebaluazioa.

Zehatzago esanda, lehenengoz, esaten da “gai berari buruz dagoen legeria zabalak eragiten dituen disfuntzioak eta kontraesanak murriztea” dela xedea, baina ez du argitzen aurkitutako disfuntzioak eta kontraesanak zein diren.

Bigarrenez, helburutzat aitortzen du “eztabaida erabakitzaileraren sustatzea gauza publiko deiturikoari buruz herritarrek duten pertzepzioaren hobekuntzaren gainean, haren balioa handitzeko”. Helburu hori nahikoa iluna da. Ulergarria da Administrazio Publikoak hobetu nahi izatea herritarrek “gauza publikoari” buruz duten pertzepzioa, baina nekez ulertzen da “eztabaida erabakitzaileraren sustatzeko” helburuaren xedea, ez baititugu eztabaidan parte hartuko dutenak ezagutzen, ez eta zeren inguruan erabakiko duten ere.

Testuan esaten da arestian aipatutako helburuek lagunduko dutela “administrazio-kultura berria sortzen, garai hauek eskatzen dituzten paradigma berriak oinarri hartuta”. Dena dela, ez da azaltzen paradigma berri horiek zein diren.

Era berean, I. Tituluaren azalpenak dio “ezin dela esan Eusko Jaurlaritzak bere jokabidearekin azken urteotan eratu duen eredu Europa gobernantzaren paradigma modernoetatik urrun egon denik”, baina esaldi hori kontraesanezkoa da “paradigma berriak” ezarri behar direlako baieztapenaren esangurarekin.

## ***II. Balioespen orokorra***

Hasteko eta bat, kideok adierazi nahi dugu batzorde honetan ordezkariak duten erakunde eta antolakundeek giltzarritzat jotzen dutela Administrazio Publikoa herritarren ongizatea bermatze aldera, eta bereziki, ekonomia eta gizartearen jardueraren garapena garatze aldera, administrazioak berak daukan garrantzi eta hedaduragatik ez ezik, batik bat, sektore publikoak daukan funtsagatik jardura ekonomikoa bideratzeko.

Sektore Publikoaren egiturazko arauak aspaldikoak dira; alabaina, denboraren poderioz, EAEko gizarte- eta ekonomia-egoerak berebiziko aldaketak izan ditu eta aldaketa horietara halabeharrez egokitu behar denez, sektore publikoaren erreforma ageriko beharrian da gaur egun.

Erreformaren xede nagusiak kudeaketa optimizatzea izan behar du, eta horretarako, hainbestetan aipatutako abiaburuak zorrotz bai zorrotz bete behar dira, hala nola, arrazionaltasuna, argitasuna, eraginkortasuna, eragingarritasuna, erraztasuna eta gardentasuna, Sektore Publikoaren egitura eta antolaketa taxutzeari dagokionez, nahiz bere

jardunbideari dagokionez. Horri gehitu behar diogu, halaber, sektoreak garatzen dituen politika publikoen ebaluazioa.

Orain aurkeztu den lege-aurreproiektuak helburu bikoitz hori jorratzen du, hau da, sektore publikoaren antolaketa nahiz jardunbidea arautzea eta helburua betetzeko, besteak beste, lehen aipatutako abiaburuak baliatu nahi ditu.

Bat gatoz eta bat egiten dugu aurreproiektu honi atxikitako abiaburu eta irizpide orokorrekin, eta Euskal Administrazioak beharrezko duen arauketari lotutakoak nabarmendu nahi ditugu, bereziki, herritarren parte-hartzea eta gardentasuna sustatzen dutenak, herritarren beraien kalitate demokratikoaren eskakizunei erantzuteko asmoz.

Horren ondorioz, lege-proiektuak jorratzen dituen abiaburuak aldeztu ditugu, ondoan adieraziko ditugun auziei kalterik egin gabe.

Zehatzago esanda, sakonegiak izateko asmorik gabe, gai batzuk nabarmenduko ditugu hurrengo lerrootan, gure iritziz, berebiziko garrantzia dutelako:

- Administrazio-egituren hazkundera geldiarazteko asmoz, kautelazko hainbat neurri ezartzeko diseinuan egindako ahalegina, egiturak lautzeko helburuz. Izan ere, gure iritziz, behar-beharrezkoa da Administrazioa arrazionalizatzea, bikoizketak eta eraginkortasunik ezak saihesteko, horiek ez baitira inoiz onargarriak, are gutxiago krisi-sasoietan.
- Gobernuaren ekinbidearen objektibazioa eta zehaztapena, ulermena, jarraipena eta ebaluazioa errazten duten tresnak eskuetatuta: Gobernu Plana eta legegintzako egutegiaren, plan estrategikoen eta jarduera esanguratsuen jarraipena egiteko agiriak.
- Politika publikoak ebaluatzeko hartzen diren konpromisoak; ebaluazioak berebiziko garrantzia dauka kudeaketa publikoa hobetzeko, baina orain arte ez zaio ebaluazioari heldu. Aurreproiektuak lehen aldiz jorratzen du ebaluazioaren arauketa, era sakon eta zabalez jorratu ere. Gainera, herritarren parte-hartzea kontuan hartzen du ebaluazioan eta publizitaterik handiena ematen dio.
- Gardentasun-konpromisoari datzekion betebeharrak, oinarrizko araudian jasotako oinarrizkoetatik harakoak, hala nola, datu publikoen irekiera arautzeko ekimena, datuak berrerabili ahal izateko. Ekimen hori sekulako merkatu-hobia da eta zeharo finkatuta dago ildo horretatik aspaldi jo zuten herrialdeetan.
- Parte hartzeko eskubideari lotutako eskubideen zehaztasuna, bereziki, ondokoena: programa eta politika publikoetan parte hartzeko aukera, gauzatutako politiken eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeko aukera eta izaera orokorreko xedapenak lantzeko aukera ematen dietenak herritarrei nahiz interes-talde esanguratsuei.
- Beren-beregi aipatu nahi dugu lege-aurreproiektuak egiten duen ahalegina administrazio-prozedurak errazteko. Administrazio-izapideen konplexutasuna eta neurritz gorako joritasuna eragozpen nabarmena izan da beti jarduera ekonomikoa sustatzeko. Horregatik, oso onuragarri deritzegu hartutako neurriei, besteak beste, honako hauei: prozedurak birformulatzeko konpromisoa; prozedurari aplikagarri ez zaizkion arauak eskatzen ez dituzten datuak edo agiriak edo administrazioaren esku daudenak aurkeztu behar ez izateko eskubidea; erabilitako prozeduren

administrazio-zama aztertzeko ebaluazio berariazkoak; sektore jakin batzuei eragiten dieten arau-multzoen gaineko ebaluazio berariazkoak, arau-multzo horiek arrazionalizatu eta laburtzeko gehiegizkotzat jotzen direnean, kodetze, legezko testuen bateratze, lege zaharkituen berariazko indargabetzeen bitartez eta administrazio elektronikoa bultzatuz.

### **III. Arauaren aplikazio-eremua**

Gairik kezkarrietakoa dugu Sektore Publiko eraginkor eta eragingarria egituratzea da. Euskal Autonomia Erkidegoaren 30 urtetik gorako historian zehar, sektore publikoa eratuz eta egituratuz joan da, baina batzuetan, gaur egun antzeman ditugun erakunde-diseinuaren arazoak mugatzeko irizpiderik ez da erabili.

Lege-aurreproiektuak ahalegin txalogarria egiten du eta neurri ugari proposatzen ditu arazoari heltzeko. Horiek guztiak aldeztu ditugu, gure ustez, aurrerapauso nabarmena dakartelako arrazionalizazioaren ildoan; hala ere, gure aburuz, arazoaren larriak ahalegin handiagoa eskatzen du, eta halabeharrez, administrazio-maila guztiek parte hartu beharko lukete gogotik auziaren konponbidean.

Jarduteko abiaburu orokorren enuntziatua egokia da. Administrazioen arteko koordinazioa ahalbidetzen duten tresna juridikoen zerrenda osoa gogoraraztea egokia da. Eta, jakina, Administrazioaren diseinu ez-eraginkorra eta, bereziki, bikoizketak konpontzeko helburuz, Administrazio Orokorrari kontrol zorrotzak eta askotarikoak ezartzea egokia da.

Nolanahi ere den, ez zaio oraindik ere ekin alderdi gatazkatsuenari: gaia bera antolatzea, parte hartzen duten administrazio publiko guztiak aintzat hartuta. Hala egin ezean, ezin izango Euskal Administrazio Publikoa arrazionalizatu, ezta bikoizketak baztertu ere.

EAEk eskumen eskusiboa dauka ondoko arloetan: "Toki Araubidea..." (Autonomia Estatutuaren 10-4 art.), "Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa..." (AEren 10-24 art.) eta "Euskal Autonomia Erkidegoko jarduera ekonomikoaren sustapena, garapen ekonomikoa eta plangintza..." (AEren 10-25 art.). Arlo horietan guztietan, Eusko Legebiltzarrak legeak eman ditzake, eta udal nahiz foru aldundiei agindu diezaieke beraien menpeko sektore publikoa antolatzeko, historian zehar sortu diren bikoizketak murrizte aldera.

Aurrekoa dela eta, aipatu behar dugu EAEko administrazio guztiak lege horren bitartez "harmonizatze" aukera aparta galtzen dela, nahiz eta proiektuaren memoria teknikoan aitortzen den legearen eragin-eremua administrazio guztietara hedatu ahal den, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.2 artikulua xedatzen duen eskumenean tituluan oinarrituta<sup>1</sup>.

Aztergai dabilgun proiektua lege bihurtuko balitz aplikazio-eremua aldatu barik, nahaste handiagoa sortu eta arauen gainezarpena areagotuko litzateke, eta beraz, aukera galduko litzateke zerbitzuen kudeaketari egozten zaion bikoizketa gainditzeko eta, herritarrentzako zerbitzugintzari dagokionez, administrazioaren heterogeneotasuna apaltzeko; bestalde, nekez gutxituko litzateke erakunde, zuzendari, aldi baterako langile eta abarren kopurua.

1. Hala eta guztiz ere, bigarren xedapen gehigarrian, EAEko erakunde erkideetara mugatzen da arauaren aplikazioa, nahiz eta gardentasunaren atalean, Gardentasunaren Euskal Agentziaren bitartez, foru aldundien eta tokiko erakundeen parte-hartzea arautzen den Kontseiluan, bai eta administrazio guztietarako hedadura ere.

Gure ikuspegitik, egokiena ondokoa litzateke. Alde batetik, Euskal Sektore Publikoa osorik arautzen duen legea lantzea, hau da, administrazio bakoitzaren (erkidegokoa, tokikoa eta lurraldekoa, ordezkartzakoa eta aholku-emailea, UPV-EHU, Lehiaren Euskal Agintaritzak eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa) administrazio orokorra, erakunde autonomiadunak, zuzenbide pribatuko erakunde edo sozietate publikoak edo horren menpeko enpresak zein antolakundeak aintzat hartzen dituenak.

Beste alde batetik, Lege mailako bigarren araua ematea Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko guzti-guztien xedeak, helburuak eta abiaburuak xedatzeko, "Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari" dagokionez (EGABen aurkeztu den proiektuaren III, IV eta V. Tituluek jasotakoa barne), "Gardentasun, Agiri Publikoak eskuratu eta Gobernu onari" buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 9. azken xedapenak ezarritakoari jarraiki.

Izan ere, lege honetan bertan hiru euskal administrazioen sektore publikoa antolatzeko jardun-irizpide bateratuak ezartzea beharrezkoa den bezala, gure iritziz, oso egokia izango litzateke jardunbide-abiaburu orokorrak ezartzea hiru erakunde-mailentzat, legeak araututako beste gai batzuei dagokienez, hala nola, gardentasuna, ebaluazioa edo parte-hartzea.

Azken batean, uste dugu Administrazio Orokorrarentzat ezarri diren arauak egokiak direla eta, hein handi batean, EAEko administrazio osora heda daitezkeela; hala, legegintza-ekimen honen abiaburu edo printzipioak merezimendu osokoak izan arren, lege-aldaketak ez du inolako zentzurik EAEko Administrazio Publikoa oso-osorik aintza hartzen duen esparru orokor baten barruan garatzen ez bada.

Nolanahi ere, egungo egoera ikusita, esan beharra dago neurriak lehenbailehen hartu beharko liratekeela. Horren haritik, komeniko litzateke aurreproiektuak berak ekintza-plana jasotzea, 48. artikulua jasotako berregituratze-neurriak zehazteko. Premiazkoa da sektore publiko guztia, aldezturik adostutako egutegia eta helburu zehatzak tarteko, aurreproiektuak aipatzen dituen ebaluazioen pean jar dadin eta, ebaluazioak ikusita, dagozkion desegiteak edo bategiteak agindu daitezken.

Gure aburuz, behar-beharrezkoa da gainerako administrazio publikoak arrazionalizazio-ahalegin honetan txertatzea (bidezko den eran), eragindako administrazioen azterketa bateratutik eta euren konpromisotik abiatuta besterik ez da lortuko Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publiko osoaren beharrezko arrazionalizazioa.

#### ***IV. Administrazio aholku-emailea***

EAEko hogeita hamar urtetik gorako historian, administrazio aholku-emaile zabala eratu da. Administrazio hori mota askotariko parte-hartze eta aholku organoen bilbadura edo sare zabalak osatzen du.

Organoen ugaritzeari buruz ohartarazi dute sarritan erakunde askok. Hala berean, organo aholku-emaileen sarea arrazionalizatu eta errazteko beharrezkoa aipatu da behin eta berriro, halako hamaika izan badirelako. 12. artikuluan (Kide anitzeko organoak), ildo horretako ahalegina egiten da, baina gure aburuz, ez da nahikoa. Egoera ikusita, egoki deritzogu berriazko plana garatzeari, EAEko administrazio aholku-emailea oso-osorik ebaluatu eta berregituratzeko helburuz, etorkizuneko arrazionalizazio- eta euspen-irizpide zorrotzetan oinarrituta.

Hala eta guztiz ere, lege-aurreproiektuak herritarrek parte hartzeko bide berriak proposatzen ditu eta, berez, parte hartzeko zeinahi bide egokia izan litekeela kontuan hartuta ere, kezka sorrarazten dute, halaber, oraingo egoera ilunak konplexutasuna areagotuko ez ote duen.

Beste alde batetik, aintzat hartu behar dugu herritarrek parte hartzeko bide berriek lehendik finkatutakoetan izan dezaketen eragina; izan ere, berriek lehengoan indarra gutxitu ahal dute era askotako bilduma batean sartuta, non iritzi eta ekarpen guztiek ezin duten balio eta pisu berdina izan. Gainera, gizarte-eragileei gagozkiela, oso kontuan hartu behar dugu herritarrei dagozkien interesetan parte-hartzea, eskubidea izan ez ezik, betebeharra ere badela, eta horren ardura hartu behar dute ordezkarien aurrean eta, oro har, gizartearen aurrean.

Azkenik, ohartarazi behar dugu Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea (EGAB) eta Lan Harremanen Kontseilua (LHK) erakunde aholku-emaileak ez direla testuan aipatzen. Bi erakundeek lege ezarritako eginkizun zehatzak betetzen dituzte eta, gainera, nolabaiteko kontraesana (eta nahastea) gerta liteke egun indarrean dauden entzunaldi publikoaren eta aholku-prozeduretan. Horregatik, aipatutako erakunde aholku-emaileak arauan txertatu eta horietako bakoitzak parte-hartze eta entzunaldi prozeduretan izango dituzten eginkizunak argitzeko proposamena egiten dugu.

Ildo horretan, komeniko litzateke lege honi Xedapen Gehigarri bat eranstea, gogora ekartzeko erakunde aholku-emaileek ekimen publikoen berri emateko betebeharra dutela, ekimenok arautzeko legeetan halakorik jasotzen bada.

#### ***V. Sektore publikoko erakundeen eraketa eta kontrola***

Lehenengoz eta bat, adierazi nahi dugu askotan nahikoa eztabaidagarria izan dela sektore publikoko erakunde berrien eite juridikoa aukeratzea<sup>2</sup>

Aurreproiektuak jasotzen duen erakundeen tipologiak (33. artikulua) ez du nabarmen aldatzen indarreko araubide juridikoan lehendik dagoena eta, gainera, ez ditu irizpideak edo baldintzapenak ezartzen eskumeneko hautaketa zedarritzeko, nahiz eta 35-4 artikuluan eta 36-2-c) artikuluan sortu berriko erakundeek eite juridiko egokiena edo aproposena hartuko dutela, legean bertan erakunde bakoitzarentzat arautzen diren irizpideei jarraiki, esaten den arren. Edozein kasutan, aipatutako irizpideak ez dira arauan zehazten.

Horrela, aurreproiektuak erakunde-mota bakoitza definitzen du (organismo autonomiadunak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak eta abar), baina era adjektiboan definitzen ditu (funtsean, erakundeen erregimen juridikoa deskribatzen du), ez era substantiboan, hau da, erakunde-mota bakoitzari dagozkion eginkizunak identifikatuta. Horren ondorioz, ez da irizpide argirik agertzen hautaketa zedarritzeko erakunde-zerrenda horren barruan eta, ildo horretan, aukeraren eskumeneko hautua mugatzeko. Areago esanda, ez da lehentasunik ezartzen erakunde-mota jakin baten alde (sozietate publikoetan azaltzen den salbuespena izan ezik).

Beste alde batetik, erakunde-mota horiek sortzeko prozedurari gagozkiola, on deritzogu aurreproiektuaren 39. artikulua erakunde autonomiadun eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren eraketa lege bidez egin behar dela xedatzeari; izan ere, aplikagarria den erregimen juridikoaren zurruntasuna (publikoa ala pribatua den), eman beharreko zerbitzua emateko edo bete beharreko eginkizuna(k) betetzeko egokitasunaren arabera, gure iritziz, ez da nahastu behar erakunde-tresna bi horiek sortzeko beharrezkoa den Legebiltzarraren kontrolarekin.

2. Orain dela gutxi, eztabaida politiko bizia piztu da Lanbideren izaera juridikoaren inguruan. Eztabaida horrek egundoko eragina izan zuen erakundearen jardueraren garapenean hasiera-hasieratik.

Eta iritzi horri eutsita, artikulua 5. atala kendu eta, horren ordez, Administrazio instituzionalaren erakundeak desegitea lege bidez egin behar dela (ez dekretu bidez) bermatzen duen beste artikulua bat idaztea proposatzen dugu, erakundea sortzeko xedea ustez bete bada edo “legez ezarritako beste zeinahi arrazoiaren zioz”, Legebiltzarrak desegiteko baldintzak gertatu ote diren eta erakundea eratzeko Legean ezarritako xedapenak bete ote diren egiaztatzea izan dezan.

#### ***VI. Politiken ebaluazioa***

Euskal Administrazio Publikoak sustatutako lege, plan, proiektu eta abar ebaluatzeko zenbait aldi xedatzen ditu aurreproiektuak: ekimena aurkeztu aurreko aldia, gauzatze-aldia eta “ex post” edo gauzatu osteko aldia.

Edozelan ere, ebaluazioa gauzatzeko ahalmena sail edo erakunde sustatzaileari egozten zaio, baina komeniko litzateke gauzatze-aldian bertan eta gauzatu osteko aldia egiten den ebaluazioa erakunde lokabe edo aske bati esleitzea (Agentzia edo Institutu bati) eta, gainera, EAEko administrazio publiko guztiei hedatu ahal zaie ebaluazioa egiteko ahalmena.

Halaber, erakunde horrek beste eginkizun batzuk eskura litzake, besteak beste, ebaluazioaren kultura eta ebaluazio-praktikak sustatzea, kudeaketa publiko aurreratuko ereduak garatzea... EAEko administrazio publikoetan.

#### ***VII. Estatuko Gardentasunaren Legea***

Estatuak orain dela gutxi argitaratu duen abenduaren 9ko 19/2013 Legeak, Gardentasun, Informazio publikoa eskuratze eta Gobernu onari buruzkoak, izaera orokorrez betebeharrak batzuk ezarri ditu alderdi politiko, sindikatu eta ugazaben elkarrekin (8. Azken Xedapena, 3. artikulua, 5-2 artikulua eta 8. artikulua lotuta).

Euskal Autonomia Publikoaren Lege Aurreproiektuak aipatutako betebeharrak horietako batzuk baino ez ditu jasotzen, nahiz eta artikulua berak adierazten duen Oinarrizko Legeari eta erkidegoko araudi osagarriari men egingo diela (88.2 artikulua, Institutuari eta antolamenduari buruzko informazioa). Horrek esan nahi du, behintzat, oinarrizko legerian ezarritako betebeharrak bete behar direla, erkidegoko araudiak beste batzuk ezarri ahal izateari kalterik egin gabe.

Gure iritziz, segurtasun juridikoa babestu eta operadore juridikoan lana eratzeko helburuz, egokia litzateke auzi garrantzitsu hori argitzea.

## **IV.-BERARIAZKO GOGOETAK**

---

### Zioen azalpena

9. orrialdean, bigarren paragrafoan, arauaren III. Tituluaren “Euskal Administrazio Publikoaren funtzionamendua, herritarren zerbitzura egoteko” edukia aipatzen da eta jasotzen diren beste gauza batzuen artean, herritarrek Administrazioaren aurrean dituzten eskubideak eta betebeharrak nabarmentzen dira (57. artikulua).

Horren ondotik, herritarren eskubideak azaltzen dira, baina artikuluan bertan jasotzen diren beharrak aipatu beharko lirateke zioen azalpenean, eskubideak bezain garrantzitsuak direlako.

#### **12.4. artikulua.- Kide anitzeko organoak**

“Gobernu Irekiaren Plataformaz” aritzean, gomendatzen dugu aipatutako plataforma hori arautzen den 128. artikuluaen aipamena egitea.

#### **14. artikulua.- Herritarrek eta elkarteek parte hartzeko gune egonkorrak**

Gure iritziz, “legez aitortutako interesak ordezkatzeko dituzten elkarteak” aipatu beharko lirateke artikulua horretan, gizarte-eragileak eta beste erakunde-mota batzuen parte-hartzearen garrantzia apaldu ez dadin.

#### **58. artikulua.- Gobernu-plana**

Artikulu horrek ezartzen duenari jarraiki, gobernuaren ekintza denboran hedatu, gizarteratu eta konpromisoaren nahiz erantzukizunaren oinarriak herritarren aurrean agertzeko helburuz, Eusko Jaurlaritzak Gobernu-plana onartu beharko luke legegintzaldi bakoitzaren lehen zortzi hilabeteen barruan, eta horren, ondotik, planaren gutxieneko edukia zehazten du. Gure iritziz, epe hori, gehienez, sei hilabetekoa izan beharko litzateke.

Beste alde batetik, “estrategikoa” izenondoa artikulua horren 1.a) ataletik kentzeko gomendioa egin nahi dugu. Hor, modu orokorrean, “lortu nahi diren helburuak” aipatu behar dira, Gobernu-planean jaso beharreko edukietako bat direnez gero.

#### **59. artikulua.- Lege-proiektu, plan estrategiko eta jarduera esanguratsuen eraginaren aurretiazko ebaluazioa, eta esku-hartze publikoen beste ebaluazioak**

Artikulu horren 1. atalaren idazketa aldatzea proposatzen dugu, honela:

*“1. Lege-proiektu guztien eragina eraginak aurretiazko ebaluazioaren eraginpean jarriko dira...”*

#### **73. artikulua.- Administrazio elektronikoaren printzipioak**

Artikulu horren h) atala osatu beharko litzatekeela uste dugu, ondoan azaltzen den eran, datuen isilpekotasuna hobeto bermatzeko:

*“h) Informazio publikoa (datuak) eta software publikoa berrerabiltzeko printzipioa: Administrazio Publikoak horiek eskueran jarrita, beste agente batzuek tresna, produktu edo zerbitzu berriak sortzea da honen helburua, datu pertsonalen isilpekotasuna bermatuta eta datuok ezin erabiliko direla ziurtatuta, berariazko baimena eman ezean, ikerketa anonimoa egiteko eta zerbitzuaren kalitatea ebaluatzeko ez den beste helburu baterako.*

#### **84. artikulua.- Konpromiso orokorrak**

Gure ustez, artikulua horren 2. atala aldatu beharko litzateke, erakunde-informazioaren artean, lehia-prozeduren, langileak hautatzeko prozesuei eta langileak kontratatuzko zerrenden gaineko informazioa ere jasotzeko, argibide horiek sekulako garrantzia dutelako esparru horretan, eta sistema bat egokitu beharko litzateke informazioa denbora errealean egiaztatuzko.

Helburu horretarako, 2. atala honela idaztea proposatzen da:

*“2. Euskal Administrazio Publikoa behartuta dago aldi berean behin informazio eguneratua argitaratzera. Informazio instituzionala, antolamenduarekin zerikusia duena, plangintzari buruzkoa, garrantzi juridikoa duena, ekonomikoa, aurrekontuetakoa eta estatistikoa argitaratu behar ditu, bai eta lehia-prozedurei, langileak hautatzeko prozesuei eta langileak kontratatuzko*

*zerrendeï buruzkoa ere, informazio horren barruan sartzen da oinarrizko legedia aplikagarriak eta lege honek exijitzen dutena ere”.*

### **120. artikulua.- Hainbat interesen ordezkari diren taldeak**

Gure aburuz, artikulua hau aldatu behar da erakunde kolektiboei dagokienez, halakoei segurutasun juridiko handiagoa emateko. Horretarako, ondoko testua gehitzea proposatzen dugu a) atalean:

*“a)... betiere eratuta badaude, jardunean, eta elkarte, fundazio, erabiltzaile eta kontsumitzaileen edo araubide juridikoak onartzen duen beste zeinahi antolakunderen indarreko legeriari men egiten badiete.*

### **Xedapen gehigarriak**

Azkenik, uste dugu egokia izango litzatekeela xedapen gehigarri bat eranstea arau honi, bertan xedatzen diren gaien arauzko garapena ahalbidetzen duena.

### **Izaera formaleko azken gogoeta**

Hartutako agiriari dagokionez, argiro adierazi nahi dugu atal batzuk nekez ulertzen direla (adibidez, 70. artikulua 3. atala), eta horrek araututako gaiaren konplexutasuna areagotzen du. Horregatik, uste dugu bidezkoa dela erabilitako hizkera errazteko ahalegin egitea, eskakizun juridikoei horretarako bidea ematen duten heinean.

## **V.- ONDORIOAK**

---

Euskal Administrazio Publikoaren Lege Aurreproiektuaren gaineko Irizpen honen ondorio gisa, esan behar dugu Administrazio Publikoen multzoaren diseinu ez-eraginkorra antzeman dugula, bereziki, bikoizketa esanguratsuak sumatu ditugulako jardunbidean; horregatik, behar-beharrezkotzat jotzen dugu arau honen helburuen aplikazio-eremua euskal administrazio publiko guztietara hedatzea.

Beste alde batetik, bat gatoz eta bat egiten dugu, hein handi batean, Lege Aurreproiektu honi atxikitako abiaburu eta irizpide orokorrek, bereziki, Euskal Administrazioak eta bere jardunbideak beharrezko duten berrantolaketari, arrazionalizazioari eta berregituraketari lotutakoekin, bai eta herritarren parte-hartzearen, gardentasunaren eta politika publikoen ebaluazioaren arautzearekin. Gure iritziz, horiek guztiak hedatu beharko lirateke, ezinbestean, Euskal Administrazio Publiko guztietara. Hori guztia herritarren eraginkortasun, eragingarritasun eta kalitate demokratikoaren eskakizunei erantzuteko asmoz.

Bilbon, 2014ko uztailaren 9an



Lehendakaria O.E.  
Juan Maria Otaegui Murua



Idazkari Nagusia  
Francisco José Huidobro Burgos